

3.2 GAIAREN LANKETA

> Aditzekin jolasean



- Nola egingo dugu?

Helburuak

- Aditzak ikastea.
- Aditzak erabiltzea.
- Prozedurak azaltzen ikastea.

Prozedura

- Hezitzaileak, aurretik, “Nola egingo dugu?” fitxako marrazkiak moztu.
- Lau talde egin eta talde bakoitzari bi prozedura oso banatu; prozedurak desordenatuta egon daitezela.
- Talde bakoitzak eginbeharrekoa:
 - Bi prozeduren fitxak ordenatu.
 - Prozedura bakoitzaren pausuak idatziz jaso (Adibidez, hortzak garbitzeko hartu hortzetako eskuila, bota hortzetako pasta eta hortzak garbitu).
 - Beste umeei idatzitako prozedurak ahoz kontatu.